

Irisgarritasun plana



3. Liburukia: **ERAIKINAK**

AZPEITiko

IRISGARRITASUN PLANA

PLANARAN AURKIBIDE OROKORRA

- | | |
|--|---------------------|
| 1.- ALDERDI OROKORRAK ETA ARAUDIA..... | 1. LIBURUKIA |
| 2.- BIDE PULIKOETARAKO EKIMEN PLANA..... | 2. LIBURUKIA |
| 3.- UDAL ERAIKINETARAKO EKIMEN PLANA..... | 3. LIBURUKIA |
| 4.- GARRAIORAKO EKIMEN PLANA..... | 4. LIBURUKIA |
| 5.- KOMUNIKAZIO ETA SEINALETIKA IRISGARRIA..... | 5. LIBURUKIA |
| 6.- IRISGARRITASUN PLANAREN SINTESIA..... | 6. LIBURUKIA |

3.- UDAL ERAIKINETARAKO EKIMEN PLANA

LIBURUKIAREN AURKIBIDEA

1.- AURKEZPENA.....	3
2.- LIBURUKIAREN ERABILERARAKO JARRAIBIDEAK.....	5
3.- AZTERKETA EREMUA.....	7
4.- ERAIKINEN INBENTARIOA.....	9
5.- LEHENTASUN IRIZPIDEAK.....	11
6.- JARDUKETA PROPOSAMENAK.....	15
7.- ETAPA PLANA.....	18
7.1.- Lehentasunak	19
7.2.- Ondorengo faseak.....	24
8.- AURREKONTUA.....	31
8.1.- Aurrekontua Etapaka.....	33
8.2.- Aurrekontu Orokorra.....	35
ERANKSINA: Udal eraikinen txostenak	38

DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

1.- AURKEZPENA

Edozein pertsonak eraikin publikoetako eta edozein eraikinetako ekipamenduetara eta zerbitzuetara iristeko eskubidea du.

Horregatik, edozein eraikin berri eta eraberritzen den edozein ekipamendu publiko irisgarria izan behar du. Are eta gehiago, udal ekipamenduak irisgarriak izan behar dira, bai berriak eta bai daudenak, administrazioa izan behar delako hiritarren interesen alde egin behar duena, eta beste administrazio, enpresa pribatu, erakunde, merkataritza gunen, eta abarrentzat eredu izan behar du.

Beraz, beharrezkoa izango da ekimen programa bat izatea, egin behar diren lehentasunak eta inbertsioak zehaztu dezakeen.

“Udal Eraikinen Ekimen Plana garatzerako erabili den lan-sistematikak, eraikinaren (horren instalazioak, ekipamenduak eta zerbitzuak barne) erabiltzaile izan daitekeen edozein pertsonak topa ditzakeen egoera edo oztopoak identifikatu, lokalizatu, soluzio bidea aurkitu eta ekonomikoki kuantifikatu egiten saiatu da.

Honako liburukiak lan horren emaitzak ditu ardatz, hau da, aurkitutako oztopo eta gabezien diagnosi bat, beharrezkoak diren jarduketak jarraibideekin, eta horien balioespen ekonomikoarekin. Ekimen Plan honek duen dokumentazioa ondorengo hau da:

Erabilerarako jarraibideak

Liburuki honen erabilera azaltzen du. Udal Eraikinentzako Planean informazio zehatza nola kontsultatu deskribatzen da.

Jarduketa eremua

Aztertuko diren eraikinen aukeraketa irizpideak zehaztea.

Eraikinen inbentarioa

Aztertutako eraikinak eta Eraikinen jarduketa eremuaren definizioa.

Lehentasun irizpideak

Hiri-interesen, egungo egoeraren eta eraikinetan garatzen den jarduketaren arabera, lehentasunen zehaztapena da.

Jarduketa proposamenak

Ekimen planaren gauzatze faseen zehaztapena, udal ekipamenduetan obra eta inbertsioen udal programazioaren eta aurreikusitako baliabide ekonomikoen irizpideen arabera. Udal Eraikinen Ekimen Planaren lehentasuna duten eraikinek zehazten ditu.

Etapak plana

Aurretik finkatu diren lehentasunak sailkatzen diren etapak deskribatzen dira. Etapa bakoitzean sartu diren eraikinen zerrenda diagnosiarekin, proposatutako soluzioekin eta horien kostuarekin.

Gutxi gorabeherako aurrekontua

Proposatutako egokitzapenak egiteko beharrezkoak diren lanen gutxi gorabeherako aurrekontua balioesten da.

Eranskinak

Aztertutako udal eraikin guztien txostenak. Txosten hauek diagnosia, egokitzapen proposamena, proposatutako jarduketa eta horien aurrekontua dute.

2010. urte hasieren, Estatuko Gobernuak Etxebizitza Ministerioak, 173/2010. Errege dekretuaren bitartez, eraikin guztiek bete behar duten irisgarritasun gutxieneko neurriak ezartzen ditu. Eraikuntzaren Kode Teknikoaren barne geratzen dira neurri hauek (zehazki DB SU- Erabilpen Segurtasuna atalean, aurrerantzean deituko da DB-SUA “Seguridad de Utilización y Accesibilidad”, Erabilpen Segurtasuna eta Irisgarritasuna). Halaber, aldaketak egiten dira DB-SI-n (Segurtasuna Sute kasuan), irisgarritasuna sustatzeko baita pertsonen babes-neurrietan ere, sute kasuan.

Horrek guztiak, azterketa egiteko Ministerioko gutxieneko araudia eta erkidegoko 68/2000 Dekretua kontutan hartuz egitea behartzen gaitu. Beraz, honako Irisgarritasun Planean egin den udal eraikinen azterketa, bi araudiak eta horien aginduak aintzat hartuz egin da, eta irisgarritasunaren inguruan kontraesanak aurkitu diren kasuetan, bietatik zorrotzena aplikatu da.

2.- LIBURUKIAREN ERABILERARAKO JARRAIBIDEAK

Aipatu dugu honako liburukiaren edukia. Plan hau garatzen duen azterketa eremuaren eta aztertutako udal eraikinen inbentarioaren deskribapenaren ondoren, irisgarritasunari dagokionez, eraikin hauetan aurkitu diren hutsuneak zehazten dira.

Zehaztu ondoren, antzemandako oztopoak konpontzeko behar diren jarduketan lehentasun irizpideak deskribatzen ditugu, eta Etapa Plan bat zehaztu eta balioesten da, hortik Udal Eraikinen Ekimen Planeko aurrekontuak eratortzen dira.

Horrek guztiak, udal eraikinak publikoa egokitzeko irisgarritasun irispideetara beharrezkoak diren jarduketan ikuspegi orokor bat ematen dugu. Planaren eguneroko erabilerarako, ordea, interesgarriagoa da proposatutako eraikin zehatzentzako jarduketa zehatzak ezagutzea (ezin dugu ahaztu Udal Irisgarritasun Plana lantzearen helburu nagusienetako bat bulego teknikoko eguneroko erreminta baliagarri gisa erabiltzea dela).

Horretarako eraikin bakoitzarentzat txostenak gehitu dira liburuki honen Eranskinean.

Bilaketarako prozedura:

Irisgarritasun Plan honen Bide Publikoaren Ekimen Plana lantzerakoan aztertu beharreko eraikinen inbentarioa egin da. Eraikin hauek zenbatu eta kodifikatu dira (ER01, ER02, ER03, ...).

Eraikin baten txostena aurkitzeko, Eranskinera joan behar dugu eraikin horren erreferentzia kodearekin. Eraikinen txostenak Eranskinean antolatuak daude bere zenbakien arabera.

Txostenen egitura:

Eranskinean jaso diren eraikinen txostenek honako edukia dute:

Eraikin bakoitzaren gainazala, aurkezpena eta argazki bat, kokapen plano txiki bat, eraikinaren deskribapena eta ezaugarri nagusiak ditu. Baita eraikina zein etapatan dagoen azaltzen da ere, Udalak ezarritako lehentasun irizpideen arabera.

Ondoren aurrekontuen laburpen bat azaltzen da, eta kontzeptuen zehaztapena. Ondoren eraikinaren eremu bakoitzari dagokion proposamen zehatzak azaltzen dira, argazki bat, proposatutako jarduketaren deskribapena eta gutxi gorabeherako gauzatze materialaren aurrekontuarekin batera.

Azkenik, proposatutako jarduketa guztien aurrekontu zehatza azaltzen da, eta txostenen bukaeran plano batzuk daude. Hauetan proposatzen diren neurri zuzentzaileak ikusiko dira, betiere, eraikinaren plano digitalizatuak eskuratuak izanez gero.

3.- AZTERKETA EREMUA

Hasteko, Planean udal eraikin guztiak sartzen dira. Kanpoan geratzen dira, ordea, aurri edo erdi-aurri egoeran dauden eraikinak, Udal plangintzaren arabera desagertzeaz daudenak, edo baita eraberritze proiektua bat duten kasuak, proposamen horiek irisgarritasuna bermatzeko neurriak kontuan izaten baitituzte.

Azterketa eremuak aztertutako eraikien aldaketak ekartzen dituenek, erreferentziazat hartuko dira bai 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak, eta horren “V. ERANSKINA. Eraberritze, zabalkuntza edo aldaketa-obra urbanizazio eta eraikinetan”, eta baita, 173/2010 Errege Dekretua, otsailak 19koa, non Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen zuena ere, irisgarritasunari eta pertsona desgaituak ez diskriminatzeaz buruzkoa.

Irisgarritasunari dagokion indarreko araudiak zehazten dituen parametro teknikoetan oinarritzen da lan guztia, Irisgarritasun Kontzeptu Europarrean, baita Pertsona ororentzako Diseinuaren printzipio orokorrean ere.

Irizpide orokor gisa, eremu bat, instalazio edo zerbitzu bat irisgarria da 68/2000 Dekretuaren eranskinetan eta 173/2010 Errege Dekretuan jasotzen diren irizpide teknikoak erabat betetzen baditu. Erabilgarria da, erabat araudia bete gabe, mugikortasun murriztua duten pertsonak erabili dezaketenean, autonomiaz; eta ez da irisgarria izango mugikortasun murriztua duten pertsonak, autonomiaz ezin dutenean erabili.

Irizpide orokortzat, kontuan hartzen da edozein jarduketaren ondoren eraikina irisgarria izan behar duela. Halaber, edozein jarduketa eraikin osoaren azterketa arkitektonikoaren ondorioa izan behar du, ez da, ordea, eraikinean zatika jardun behar.

Planaren parte izango diren udal eraikinen aukeraketa egiterakoan, kontuan hartu dira ondorengo irizpideak, garrantziaren arabera:

1. Udal eraikinak edo udalak kudeatzen dituen eraikinak.
2. Eraikinen egokitzapenean Udalak interes berezia adierazi duen kasuetan.
3. Pertsona ugari erabiltzen dituzten eraikinak.
4. Pertsonen ongizaterako eraikinak.

5. Irisgarriak ez diren eraikinak, eta irisgarriak izateko inoiz inongo egokitzapenik izan ez dutenak.

Eraikin bakoitzaren barnean, irisgarritasun printzipioak ezartzea saiatzen gara eraikinaren areto eta gela guztietan. Irizpide hau aintzat hartuz, eta hau ezartzeak erakartzen dituen ondorioak kontuan izanik, eraikinetan jarduketak aztertzeo eta proposatzeko momentuan hainbat egoera izan ditzakegu:

- Areto guztiak egokitzeko ezintasun teknikoa dagoenean, eguneroko erabilera duten gelak egokitzea proposatzen da, edo gutxienez, zerbitzu publiko bat eskaintzen duten aretoak.
- Hau ezinezkoa balitz, areto horietan publikoari eskaintzen den zerbitzuak birkokatzea proposatzen da, irisgarriak izango diren aretoetan edo egokitzeko aukera dutenetan.
- Areto hauek ezin badira egokitu, eta ezin bada komun egokiturik eraiki, eraikinak eskaintzen duen zerbitzua beste eraikin irisgarri batean kokatzea proposatzen da.
- Bestalde, eraikinaren sarbideak ez badira irisgarriak, eta egokitzea ezinezkoa bada, eraikinaren erabilera aldaketa eta dauden zerbitzuak irisgarritasuna bermatzen duen beste eraikin batean birkokatzea proposatzen da.

Arestian aipatutako kasu guztietan, hartu beharreko neurriak teknikokibideraezinak edo neurrigabeak badira irisgarritasun gutxienerako parametroak lortzeko, erabilgarritasun irizpideak ontzat hartzen dira.

Orokorrean, eraikinen azteketan hau da lortu nahi dena:

- ☞ Eraikinaren sarrera konpontzea ordezeko sarbiderik sortu gabe.
- ☞ Ibilbideetan dauden barne maila aldaketa guztiak konpontzea.
- ☞ Igogailuak jartzea goiko solairuetara iristeko.
- ☞ Gutxienez komun egokitu bat egotea solairu bakoitzean.
- ☞ Gizon zein emakumeen komunak egokitzea.
- ☞ Beste administrazioekin hitzarmenak ezartzea euren eraikinak egokitu ditzaten.
- ☞ Merkatarengan, zabalkunde eta sustapen-neurri kanpainak proposatzea euren dendak egokitzeko.

4.- ERAIKINEN INBENTARIOA

Udalarekin adostu ondoren, soilik udal eraikinak edo udak kudeaketa duten eraikinak aztertu dira, ulertzen baita Udalak berak sustatuko dituela beharrezkoak diren erreforma eta egokitzapen- lanak.

Planaren proposamenaren baitan egoteko aukera duten eraikinak soilik hautatu dira, aztergai izateko. Udalak eman zuen aztertu beharrezko eraikin-zerrenda.

Ez dira erabiltzen ez diren eraikinak aztertu, ezta aurri edo erdi-aurri egoeran daudenak ere, edo, edozein kasutan, erabilgarriak ez direnak. Horrela, kontuan izan dugu udalak eraikin horiek berrerabili nahi balituzke, nahitaezkoa izango litzateke eraberritze edo erreforma proiektu bat.

Irizpide hauek aintzat hartuz, 12 dira aztertu diren eraikinak plan honetan. Honako hauek dira (ikusi planoak):

Administratiboa	ER01	UDALETXEA
Kulturala	ER02	ZEZEN PLAZA
Hezkuntzarako	ER03	KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA 1
Hezkuntzarako	ER04	KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA 2
Kiroletarako	ER05	IGERILEKUA
Ludikoa	ER06	IGERILEKU LUDIKOA
Bestelakoa	ER07	BAIGERA I
Kiroletarako	ER08	IZARRAITZ PILOTALEKUA
Ludikoa	ER09	LUDOTEKA ITURRI TXIKI
Ludikoa	ER10	LUDOTEKA SANJUANDEGI
Kiroletarako	ER11	KIROLDEGIA
Hezkuntzarako	ER12	URRESTILLA PERRETXXIKOA

Plan honetan aztertutako eraikinen kokapena ikusten da jarduera-eremuari buruzko planoan, Dokumentazio Grafikoaren atalean.

Eraikinen azterketak ebaluatzen du 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak, eta 173/2010 Errege Dekretua, otsailak 19koa, Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen zuenaren eragina.

Eraikinen azterketa irisgarritasunaren problematikan ardazten da, pertsonak eraikin horien instalazio eta zerbitzuetara hurbiltzen direnean. Eraikin hauetan irisgarritasun hainbat hutsune antzeman dira, batzuetan instalazioetara iristea saihesten dutenak, eta beraz, zerbitzuak erabiltzera.

Eraikinak aztertzen dira egungo irisgarritasun mailaren diagnosia eginez, eta kasu zehatz bakoitzarentzat egokitzapen soluzioak proposatuz, baita bere balioespena ere. Analisiaren ondorioz egin beharreko jarduketaren proposamen bat eta aurrekontu bat lortzen dira.

Lehenik, eraikinetan aurkitzen diren ekipamendu, elementu eta zerbitzu guztien irisgarritasun egungo egoera ezagutu behar da. Horretarako ikuskapen zehatza egiten da, dauden gabeziak eta konponbide eta zuzentze aukerak antzemateko.

Behin planoak jasotzen ditugunean, eraikinaren egungo egoerarekin bat datozen ziurtatzeko ikuskapen bat egiten da, eta analisia egiteko beharrezko datuak jasotzeko. Bisita honetan irisgarritasunari dagokion hainbat alderdi partikularrak begiratzen dira: eraikinak igogailua duen, komun egokiturik dagoen, biraketa-erradioak betetzen diren, eta abar.

Datu hauek guztiak eraikinaren ikuskapen fitxa teknikoan jasotzen dira, eraikiak zatikatzen diren eremu eta espazioen arabera ardazten dena azterketa garaian, eta eremu bakoitzean elementuak kategoriara ikertzen dira. Katetoria bakoitzean indarreko araudian jasotzen diren parametro guztiak aztertzen dira katetoria bakoitzean.

Planoak digitalizatuak daude eta hauen gainean egokitzapen proposamenak aztertzen dira. Aldaketa hauen eta ikuskapen fitxetan jasotako datuen arabera, esku-hartzeak garatzen dira, non egin behar diren jarduketak deskribatzen diren. Proposatutako jarduketei prezio oinarriak aplikatuz gero eraikinaren egokitzapenaren aurrekontua lortzen da.

Sortzen diren txostenetan, posible diren aukera guztien deskribapena eta analisia azaltzen dira, eta planoetan azaltzen dira aukera egokienak, baita proposatutako aukeren balioespen ekonomikoa.

5.- LEHENTASUN IRIZPIDEAK

Eraikin bakoitzean jarduketak lehenesteko, garrantziaren arabera, kontuan izango dira ondorengo irizpideak:

1. Eraikinaren erabilerak eta zerbitzuak
2. Okupazioa eta bisita kopurua.
3. Babeste maila
4. Azalera
5. Antzintasuna
6. Birgaitze edo/eta erreforma aurreikuspena.

Zerbitzu teknikoekin adostu ondoren, eraikinen lehentasun ordena zehazteko, hiritarren interesaren, egungo egoeraren eta eraikinen garatzen den jardueraren arabera, ondoren azaltzen diren irizpenak kontuan hartu dira, garrantziaren arabera:

1. Egokitzeko interes berezi bat adierazi den eraikinak
2. Pertsona askok erabiltzen dituzten eraikinak
3. Osasun eta sorospen ekipamenduak barne hartzen dituzten eraikinak
4. Erabilera publikoa eta administraziorako eraikinak
5. Hezkuntzarako eraikinak
6. Kulturarako eraikinak
7. Kirolerako eraikinak
8. Irisgarriak ez diren eta irisgarriak izateko inoiz egokitzapenik jaso ez dituzten eraikinak

Behin antzemandako arazoak duten inpaktua balioetsi eta lehentasunak aztertu, hobetze proposamenak garatzen dira gutxi gorabeherako balioespenekin. Kostu osoa aintzat hartuz, etapa plana erabakitzen da jarduketan lehentasun eta aurrekontuen arabera.

Eraikin bakoitzaren barnean, saiatzen da areto guztiei aplikatzen irisgarritasun irizpideak. Premisa hau kontuan hartuta eta bere aplikazioak erakartzen dituen ondorioak ahaztu gabe, eraikinetan jarduketak proposatzeko momentuan hainbat egoera azaldu daitezke:

- Areto guztiak egokitzeko ezintasun teknikoa dagoenean, eguneroko erabilera duten gelak egokitzea proposatzen da, edo gutxienez, zerbitzu publiko bat eskaintzen duten aretoak.
- Hau ezinezkoa balitz, areto horietan publikoari eskaintzen den zerbitzuak birkokatzea proposatzen da, irisgarriak izango diren aretoetan edo egokitzeko aukera dutenetan.
- Areto bat ere ezin badira egokitu, eta ezin bada komun egokiturik eraiki, eraikinak eskaintzen duen zerbitzua beste eraikin irisgarri batean kokatzea proposatzen da.
- Bestalde, eraikinaren sarbideak ez badira irisgarriak, eta egokitzea ezinezkoa bada, eraikinaren erabilera aldaketa eta dauden zerbitzuak irisgarritasuna bermatzen duen beste eraikin batean birkokatzea proposatzen da.

Arestian aipatutako kasu guztietan, hartu beharreko neurriak teknikoki bideraezinak edo neurrigabeak badira irisgarritasun gutxieneko parametroak lortzeko, erabilgarritasun irizpideak ontzat hartzen dira.

Lehentasun bi maila daude, lehenak, eraikinaren interes maila zehazten du, eta bigarrenak, xehetasun handiagoarekin proposatutako jarduketaren beharra edo premia zehazten du.

- 1. Interes mailaren definizioa:** Lehentasun maila honek elementuaren interes maila zehazten du eta lurraldea, eraikinak eta garraiobideak klasifikatzeko erabiltzen da, ageriko aldagaien arabera, hala nola konkurrentzia, erabilera, eta abar.
- 2. Behar edo premia mailaren definizioa:** lehentasun irizpideak aplikatzerakoan, interes txikiko eraikinetako gune batzuetan premiazko lanak egin behar dira, interes handiko eraikin batzuetan oso beharrezkoak ez diren lanak egin behar diren bitartean. Orokorrean, interes handiko eraikinetako jarduketek izango dute lehentasun handiena, baina batzuk ondorengo faseetan egingo dira, lehentasun txikiagoa eta ibilbide irisgarria oztopatzen ez dutela erabakitzen bada.

Hasieran, jarduketa proposamenak bi informazio hauek konbinatuz egingo dira. Lehenik eraikin motak sailkatuz, lehenengo urteetan interes handiagoa dutenak gauzatzea proposatuz eta bigarrenik, eraikin bakoitza programatuz, gauzatu behar diren jarduketaren lehentasunaren arabera. Behin-betiko etapa plana zehazteko gauzatu behar diren ekintzen balorazioa faltako litzateke, finantza-aukeretara egokituko beharko baitira. Interes maila eta premia definitzeko lehentasun irizpideak hauek dira:

A. Premia

- Mugikortasun arazoa duten erabiltzaile zehatzak (geriatrikoak)
- Arriskua (zoladura irristakorrak, eskudelik gabeko mailak)
- Biztanleria ororentzat egoera arriskutsuak egon daitezke, arrisku larrikoak izango direnak eta bereziki, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.

B. Onura soziala

- Lehentasuna izango dute pertsona kopuru handiagoarentzat onuragarriak izango diren jarduketan.

C. Planaren onuren banaketa lurraldea osoan

- Planaren ondorioak udalerriko auzo guztietan antzemango dira, parte-hartze prozesuak berak horrela behartzen gaituelako, beraz, nahiz eta premia handiko jarduketak erdiguneko auzoetan ardaztu, geografikoki banatu behar dira. Hau guztia beharrezkoa da plan hauen aurrean desengainua egon ez dezan, nolabait denei eragingo baitigu.

D. Udal ekimena edo beste erakunderen ekimen programen aurreikuspena

- Udal edo beste erakundeek aurreikusitako berrikuntza jarduketak etapa planean kontuan izango dira udalaren aurreikuspenen arabera, eta lehentasuna izango dute. Arduradunei jakinarazi beharko zaie jarduketa horien aurrerapenaren egokitasuna. Ondorioz, Planean proposatutako jarduketetan aurrezpen nabaria lor daiteke.

E. Erakunde eta hiritarren parte-hartze prozesuko eskakizunak

- Bizilagun elkarte eta erakundek ekartzen duten ezagutza kontuan ondo hartu behar da, irisgarritasunari dagokionez hiritarren sentsibilitatea islatzen badute. Batzuetan, espazio jakin batzuen inguruan, posible da legeak ezartzen dituen irizpideak baino zorrotzagoak eskatzea.

F. Aukera eta gauzatzeko erraztasun teknikoa

- Jarduketa batzuen proiektuen gauzatzea eta kudeatzearen zailtasunak behartuak izango lirateke egutegian atzeratzea, proiekturik ia behar ez duten beste jarduketak azkorrago hasiko diren bitartean.

G. Ekonomikoa

- Jarduketa motak eta noiz ahalko direngastu zehatz batzuekin aurrera egin, udalaren ahalmen ekonomikoak baldintzatuko ditu. Horrek sekulako garrantzia du, zenbait urteko plana baita, eta orokorrean udalek aurrekontuak urteko egiten dituzte eta soilik azterketa zehatzak epe luzeko inbertsioekin.
- Halaber, analisi ekonomiko bat egin behar da, beste administrazio eta udal-erakundeetatik lor daitezkeen irisgarritasunaren inguruan diru-laguntza eta inbertsioekin koordinatu ahal izateko.

H. Sinergia ondorio aipagarriak beste onura sozialetan

- Irisgarritasunari dagokionez egindako jarduketa jakin batzuk udal-jarduerako beste esparru batzuetan ondorioak dituzte, hala nola, udalerri biziagoan, ingurumenean ...
- Garraioari dagokionez, denentzat irisgarritasuna hobetzen duten hainbat neurrik, garraio publikoaren erabilera sustatzen dute, eta ondorioz, auto pribatuaren erabilera murrizten da, eta aldi berean, kutsadura eta pilaketak gutxitu.

I. Aukerak eraikinen aretoen erabileren arabera

- Ebaluatuko diren areto guztien erabilera ezagutu beharko da beti; izan ere, eraikinean ebaluatu beharreko elementuak eraikinaren erabileraren arabera dira.

6.- JARDUKETA PROPOSAMENAK

Jarduketan proposamenak AZPEITiko Irisgarritasun Planeko Udal Eraikinetarako Ekimen Planean aztertuko diren eraikinak zehazten ditu, aukeraketa irizpideak aplikatu ondoren. Eraikin hauetan dauden zerbitzuak, proposatutako egokitzapenak gauzatu ondoren, irisgarriak izango dira.

Behin udal eraikinen zerrenda egin eta ezarritako aukeraketa irizpideen arabera, Irisgarritasun Planeko Udal Eraikinetarako Ekimen Planeko jarduketa proposamenean aukeratu diren eraikinak honako hauek dira:

ER01	UDALETXEA
ER02	ZEZEN PLAZA
ER03	KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA 1
ER04	KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA 2
ER05	IGERILEKUA
ER06	IGERILEKU LUDIKOA
ER07	BAIGERA I
ER08	IZARRAITZ PILOTALEKUA
ER09	LUDOTEKA ITURRI TXIKI
ER10	LUDOTEKA SANJUANDEGI
ER11	KIROLDEGIA
ER12	URRESTILLA PERRETXXIKOA

Jarduketa proposamenak bi parte ditu, batetik, Irisgarritasun Planaren lehentasunen parte diren eraikinak, jarraian zehazten direnak, hau da, Irisgarritasun Planaren lehen etapetan egingo diren esku-hartzeak dira. Bestetik, Ondorengo Faseetan sartzen diren eraikinak, hau da, lehentasunen etapak bete ondoren egingo liratekeen esku-hartzeak.

Herritarrentzat interes handikoak direlako aukeratu dira eraikin hauek. Pertsona ugari erabiltzen dituzte eta eskaintzen dituzten zerbitzuak hurbilak eta lehen beharretarako dira.

AZPEITiko Irisgarritasun Planeko Udal Eraikinetarako Ekimen Planeko Jarduketa Proposamenaren Gauzatze Materialaren Aurrekontu osoa, lehentasunak ezarri aurretik, ondoren azaltzen da:

<u>Eraikina</u>		<u>Aurrekontua</u>	<u>%</u>
ER01	UDALETXEA	51.250,50 €	6,91%
ER02	ZEZEN PLAZA	171.589,00 €	23,13%
ER03	KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA 1	29.150,00 €	3,93%
ER04	KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA 2	67.912,00 €	9,16%
ER05	IGERILEKUA	99.563,00 €	13,42%
ER06	IGERILEKU LUDIKOA	26.566,00 €	3,58%
ER07	BAIGERA I	49.916,00 €	6,73%
ER08	IZARRAITZ PILOTALEKUA	80.032,00 €	10,79%
ER09	LUDOTEKA ITURRI TXIKI	8.451,00 €	1,14%
ER10	LUDOTEKA SANJUANDEGI	15.493,00 €	2,09%
ER11	KIROLDEGIA	135.990,00 €	18,33%
ER12	URRESTILLA PERRETXXIKOA	5.821,00 €	0,78%
Aurrekontu osoa		741.733,50€	100,00%

Taulan ikus daitekeenez, irisgarritasun-parametroetara egokitzeko aurrekontuan eragin handiena Zezen Plazako eraikinari dagokio, AZPEITiko eraikinak egokitzeko aurrekontu osoaren ia laurden bat biltzen baitu: bigarrenik, kiroldegiaren eraikina dago (% 18), eta, hirugarrenik, igerilekuak (% 13,42).

Hala izatea, batez ere, eraikinen tamainagatik da, egokitasunik ezagatik eta kasu bakoitzerako beharrezkoak diren esku-hartze motengatik, erabat egokitzeko esku-hartze handiagoak behar dituzte eta.

Funtsean, eskudelak jartzea, komunak egokitzea, ateen zabalerak egokitzea eta ibilbide bertikalak irisgarritasun-araudira erabat egokitutako igogailuen bidez konpontzea izan ohi dira eraikin bat egokitzeko aurrekontuetan garrantzi handiena duten esku-hartze motak.

Aztertutako eraikin bakoitzaren azterketa xehatua eta irisgarritasunaren diagnostikoa, esku-hartze proposamenak eta aurrekontuak eraikin bakoitzaren banakako txostenetan aurkezten badira ere, liburuki honen eranskinean, jarraian, horien guztien gastuaren kontzeptuen arabera banaketa aurkezten dugu. Gure ustez, datu interesgarria da aztertutako eraikinak egokitzeko proposatzen diren obrei buruz benetan duen garrantziaren pertzepzioari begira:

Kontzeptuak	Aurrekontua	%
ALTZARIAK	5.440,00 €	0,73%
ARRAPALAK	43.584,00 €	5,88%
ATEAK	92.716,00 €	12,50%
EGITURA	8.024,00 €	1,08%
ELEMENTU MEKANIKOAK	7.532,00 €	1,02%
ESKAILERAK	9.843,00 €	1,33%
ESKUDELAK	121.758,00 €	16,42%
IGELTSEROTZA	99.590,00 €	13,43%
IGOGAILUAK	153.586,00 €	20,71%
KOMUNAK	116.190,50 €	15,66%
SEINALEAK-KOMUNIKAZIOA	58.504,00 €	7,89%
ZOLADURAK	24.966,00 €	3,37%

Ikus daitekeenez, eraikinei dagokienez inbertsiorik handiena dakarten esku-hartzeak aurrekontuaren % 20tik gorakoa, igogailuak instalatzearekin eta komunak egokitzearekin (aurrekontu osoaren % 15) zerikusia dutenak dira. Ondoren, igeltserotza (% 13,43) eta ate zabalerak handitzearena (% 12,50).

7.- ETAPA PLANA

Etapen plana esku-hartzeen proposamena urteko etapaka egituratzea da. Proposamen horretan, esan bezala, irisgarritasuna bermatzeko eraikinetan hurrengo urteetan egin beharreko esku-hartze guztiak jasotzen dira, lehentasunak kontuan hartuta.

Irisgarritasunari buruzko 20/97 Legeak adierazten duen bezala, plana gutxienez lau urteroko da, baina AZPEITiko kasuan, eta Planean azaltzen diren proposamenen garrantzia eta aurrekontu handia aintzat hartuz, erabaki da *Eraikinetako Ekimen Planaren* lehentasunak bi etapetan soilik antolatzea (Lehentasunak eta Ondorengo Faseak), urteko hainbat ekitalditan garatuko dira, Udalak aurrekontuan jasotako esku-hartzeei ekiteko dituen benetako aukeren arabera, laurlekoaren barnean, Plana teorikoki indarrean dagoen bitartean.

Aipatu behar da Bide Publikorako Ekimen Planean ezarritako jarraitu behar diren pausuen ordena errespetatzea garrantzitsua bada ere, Udal Eraikinetarako Ekimen Planean ez da horrela jarraitu behar.

Arlo honetan, edozein arrazoiengatik, jarduketaren ordena aldatuko balitz, Planean proposatutakoaren bukaerako kalitatea ez da gutxituko.

Edonola, interes maila ezberdinen arabera, eraikinek egokitzea zuzenduta dauden jarduketaren gauzatzearen lehentasun maila aldatu arren, garrantzitsua da azpimarratzea eraikin bakoitzean jarduketak osoak izan behar direla. Adibide gisa, eraikinen seinaleztapena egokitzeak ez du mesede handirik egingo, seinaleztatzen dutena egokitua ez badago.

Beraz, jarduketak osoak izango dira, eraikin bakoitzaren lehentasuna kontuan hartu gabe. Hasieratik bukaera arte egin behar dira, behin jarduketak bukatuak daudenean, eraikina erabat irisgarria izateko.

Arestian esan den bezala, AZPEITiko Irisgarritasun Planeko Udal Eraikinetarako Ekimen Planeko Jarduketa Proposamenaren Gauzatze Materialaren Aurrekontu totala **741.733,50€**-koa da. Ondoren, aurrekontu hau azaltzen da aipatutako bi etapetan egituratua: Lehentasunak eta Ondorengo Faseak.

Etap	Aurrekontua	%
Lehentasunak	312.035,00 €	42,07%
Ondorengo faseak	429.698,50 €	57,93%
Totala	741.733,50 €	100,00%

Etap-planari buruzko planoan, Dokumentazio Grafikoaren atalean, aztertutako eraikinen kokapena eta dagokien etapa ikusten dira. Hau da, lehentasunei dagozkien eraikinak eta hurrengo faseetarako hautatutako eraikinak identifikatzen dira.

Eranskinean azaltzen diren txostenak, eraikin bakoitzeko azaltzen da ondorengo dokumentazioa: proposamen azalpen laburtu bat, aurrekontuen laburpena kontzeptuka, eta egin beharreko jarduketaren deskribapen xehatua. Halaber, txosten bakoitzeko planoak daude, non azaltzen diren proposatutako esku-hartzeak.

Ondoren, AZPEITiko Irisgarritasun Planaren eraikinetako jarduketaren proposamenak xehatuko ditugu.

7.1.- Lehentasunak (Lau urteko Plana)

Jarraian, lehentasun irizpideak aplikatu ondoren, lehentasunen atalean hartuko diren eraikinak zehazten dira, AZPEITiko Irisgarritasun Planean. Esan den bezala, eraikin hauek, bide publikorako proposatutako egokitzapenak gauzatu ondoren, udalerriko alde handi batean dauden ibilbide edo bide irisgarrietako parte izango dira (zirkuitu ibilbideak ere deritzo).

Honako AZPEITiko Irisgarritasun Planeko Udala Eraikinetarako Ekimen Planaren Lehentasun Proposamenean ondorengo eraikinak daude.

<u>Eraikina</u>	<u>Aurrekontua</u>	<u>%</u>
ER05 IGERILEKUA	99.563,00 €	31,91%
ER06 IGERILEKU LUDIKOA	26.566,00 €	8,51%
ER07 BAIGERA I	49.916,00 €	16,00%
ER11 KIROLDEGIA	135.990,00 €	43,58%
Presupuesto total	312.035,00 €	100%

Esku-hartze Proposamenei buruzko planoan, Lehenetasunak, Dokumentazio Grafikoaren atalean, Plan honetan lehenetsitako eraikinen kokapena ikus daiteke.

Hainbat argudio adostu dira Udalarekin eraikin horiek lehenesteko, eta horietan garatzen diren erabilerekiko interes berezitik hasi eta horiek egokitzearen onuradun izango diren erabiltzaileen kopuru eta erakunderaino doaz.

Ikusten denez, kiroldegiko eraikinean egin beharreko esku-hartzeak dira, alde handiarekin, inbertsio handiena egiten dutenak lehenetasuneko faseko eraikinen artean, aurrekontu osoaren % 43,58, esku-hartzeen eta eraikinaren garrantziaren ondorioz. Bigarrenik, aurrekontu osoaren ia herenarekin, igerilekuen eraikina dago, non esku-hartzeen kopurua eta tamaina garrantzitsuak diren.

Ondoren azaltzen dira, lehenetasuna duten eraikinetan egingo diren jarduketa motak:

Kontzeptua	Aurrekontua	%
ARRAPALAK	4.456,00 €	1,43%
ATEAK	26.777,00 €	8,58%
EGITURA	8.024,00 €	2,57%
ELEMENTU MEKANIKOAK	7.532,00 €	2,41%
ESKAILERAK	4.080,00 €	1,31%
ESKUDELAK	36.966,00 €	11,85%
IGELTSEROTZA	4.062,00 €	1,30%
IGOGAILUAK	141.529,00 €	45,36%
KOMUNAK	40.571,00 €	13,00%
SEINALEAK-KOMUNIKAZIOA	25.648,00 €	8,22%
ZOLADURAK	12.390,00 €	3,97%

Taulan ikus daitekeen bezala, lehenetsitako eraikinetan pisu handiena duten esku-hartzeak igogailuak instalatzea da, lehenetasuneko eraikinetarako aurrekontu osoaren ia erdia izanik. Bigarren lekuan dago komunaren egokitzapena (% 13), eta oso gertu, hirugarren lekuan eskudel egokituak jartzea (ia % 12).

Jarraian, lehentasunezko eraikinetan, diagnosia eta irisgarritasuna bermatzeko proposatutako esku-hartzeak deskribatzen ditugu.

ER05 – IGERILEKUA:

Igeriketa kirola egitera bideratutako eraikina da batez ere. Kanpoko igerilekuak, ordea, izaera ludikoa eta sasoikoa dute. Hiru solairu ditu, eta goiko biek beste kirol batzuk egiteko gelak dituzte, hala nola fitnessa, pilates eta abar. Beheko solairuan komunak, aldagelak, administrazioa eta igerilekuak daude.



Irisgarritasunari dagokionez, eraikinak funtsezko arazo bat du igerilekuetarako sarreran; izan ere, igerilekuak aldagelekiko beste maila batean daude, eta iristeko modu bakarra eskailerak edo arrapala estu bat da erabiltzea da, eta arrapalak % 20 inguruko malda du. Gainera, zenbait komun eta aldagela daude, egokitzen batzuekin, baina ia guztiek gabeziak dituzte eta zein dira irisgarritzat hartu.

ER06 – IGERILEKU LUDIKOA:

Nagusiki kanpoan dagoen instalazioa da; sarrera-kontrol txiki bat du eta batez ere forma irregularra duen igerileku handi bat. Mutur batean, igerilekuak txirrista batzuk ditu, eta horietara igotzeko eskailera batzuk baino ez daude. Gainera, igerilekuak hainbat gune ditu eguzkia hartzeko. Alde batetik, igerilekuaren inguruko zabalgunea bera dago, eta, bestetik, solarium bat dago igerileku estaliaren estalkiaren gainean, eta horretara ere eskaileren bidez iristen da.



Irisgarritasunari dagokionez, instalazioak hainbat arazo ditu. Lehenik eta behin, igerilekuko basorako sarbidea bera ez dago egokitua. Ez dago sarbide-arrapalarik, ezta

elementu mekanikorik ere, mugikortasun urriko pertsona bat sar dadin. Gainera, igerileku osoa, irisgaitza den lubaki batez inguratuta dago. Bestalde, solarium-relax gunea belardi bat da, eta mugikortasun urriko pertsonak ezin dute erabili. Gainera, igerileku osoa inguratzen duen eremuak zoladura zimurtsuegia du eta egoera txarrean dago.

Txirristak eta horien sarbidea ere ez dira inklusiboak. Hala ere, plan honetan ez zaio irtenbiderik ematen elementu horiei; izan ere, benetan inklusiboak izateko, ez litzateke nahikoa izango goiko alderako sarbidea konpontzea, baizik eta elementu ludikoaren eredua erabat aldatu beharko litzateke.

ER07 – BAIGERA I

Baigera I hirigune historikoan dagoen mehelinen arteko eraikina da. Oin angeluzuzena du gutxi gorabehera eta bost solairu ditu. Solairu bakoitzak funtzio ezberdina du. Hala, behe solairuan, kanpoko terraza duen kafetegi bat dago; lehenengoan, jubilatuen etxea dago; bigarreanean, eguneko zentro bat, Aldundiak kudeatua; hirugarrenean, elkarteentzako aretoak daude, eta, laugarrenean eta azkenean, areto pare bat daude, erabilera zehatzik gabe (gaur egun).



Irisgarritasunari dagokionez, eraikinak igogailua eta sarrera irisgarria ditu. Hala ere, eguneko zentroaren salbuespenarekin, ez dago egokitutako komunik (beheko solairuan komun bat dago, pixka bat zabalagoa eta egokitapenen batekin, baina ezin da irisgarritzat hartu). Gainera, ate batzuen zabalera ez da nahikoa, eta ez dago seinaleztapen irisgarririk.

ER11 – KIROLDEGIA

Hiru solairuko eraikina da eta, gainera, kanpoaldean zenbait kantxa ditu kirola egiteko. Barrualdean, halaber, espazio estalian, kantxa batzuk eta 750 lagunentzako harmailak osatzen dute. Sarrera erdiko solairuan dago, baina esparru gehienak erdisotoko solairuan daude, hala nola kantxa bera, komunak eta aldagelak, padel pistak eta gimnasioak. Beheko solairuan, sarreraz gain, kafetegi jatetxea eta areto batzuk daude; goiko solairuan, berriz, harmailetara sarrera baino ez dago.



Irisgarritasunarekin lotutako arazo nagusia hiru mailak komunikatzen dituen igogailurik ez egotea da. Gainera, ez dago behar bezala egokitutako komunik (batzuek egokitzapen batzuk dituzte, baina ez nahikoa), ez aldagela irisgarririk, ezta harmailetan gurgil-aulkiak erabiltzen dituzten ikusleentzako erreserbatutako lekurik ere. Azkenik, eraikinak ez du inolako seinaleztapen irisgarririk.

Kanpoaldeari dagokionez, kirol-kantxa batzuetarako sarbidean desnibelak antzeman dira.

7.2.- Ondorengo Faseak

Ondorengo Faseetan Lehentasunetan, hau da, Irisgarritasun Planaren lehen etapetan, sartu ez diren udal eraikinak daude, eta hauen jarduketei lehentasunetan proposatutakoak gauzatzen direnean ekingo zaie. Ondorengo taulan azaltzen dira fase honetako eraikinak, dagokien aurrekontuekin batera:

<u>Eraikina</u>	<u>Aurrekontua</u>	<u>%</u>
ER01 UDALETXEA	51.250,50 €	11,93%
ER02 ZEZEN PLAZA	171.589,00 €	39,93%
ER03 KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA 1	29.150,00 €	6,78%
ER04 KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA 2	67.912,00 €	15,80%
ER08 IZARRAITZ PILOTALEKUA	80.032,00 €	18,63%
ER09 LUDOTEKA ITURRI TXIKI	8.451,00 €	1,97%
ER10 LUDOTEKA SANJUANDEGI	15.493,00 €	3,61%
ER12 URRESTILLA PERRETXXIOA	5.821,00 €	1,35%
Presupuesto total	429.698,50 €	100%

Esku-hartze proposamenei buruzko planoan (Ondorengo Faseak), Dokumentazio Grafikoaren atalean, Plan honetan lehenetsi ez diren eta hurrengo faseetarako utzi diren eraikinen kokapena ikusten da.

Taulan ikus daitekeen bezala, Planaren Ondorengo faseetan sartutako eraikinen eragin ekonomikoa askotarikoa da. Eraikinen tamaina eta esku-hartze mota desberdinak direla eta, alde handiak daude eraikin bakoitzaren egokitzapenen aurrekontuetan. Zehazki, zezen-plazako eraikinak eskatzen du egokitzeko inbertsiorik handiena, ondorengo faseetako gainerako eraikinekin alderatuta alde handiarekin. Atzetik Izarratz pilotalekua eta Karmelo Etxegara Ikastola 2 daude, baina portzentajeak ez dira hain handiak.

Ondorengo taulan azaltzen dira Ondorengo Faseetan dauden eraikinetan egingo diren esku-hartze motak:

Kontzeptua	Aurrekontua	%
ALTZARIAK	5.440,00 €	1,27%
ARRAPALAK	39.128,00 €	9,11%
ATEAK	65.939,00 €	15,35%
ESKAILERAK	5.763,00 €	1,34%
ESKUDELAK	84.792,00 €	19,73%
IGELTSEROTZA	95.528,00 €	22,23%
IGOGAILUAK	12.057,00 €	2,81%
KOMUNAK	75.619,50 €	17,60%
SEINALEAK-KOMUNIKAZIOA	32.856,00 €	7,65%
ZOLADURAK	12.576,00 €	2,93%

Taulan ikus daitekeenez, ondorengo fase hauetako esku-hartze gehienak igeltserotzako obrei dagozkie, eta ondorengo faseetarako aurrekontu osoaren bosten bat baino gehiago dute. Jarraian, eskudelak jarri dira. Jarraian datozen esku-hartzeak zerbitzuak/komunak egokitzea eta ateen pasabidea zabaltzea dira.

Jarraian, Ondorengo Faseetako eraikinetan, diagnosia eta irisgarritasuna bermatzeko proposatutako esku-hartzeak laburki deskribatzen ditugu.

ED01 – UDALETXEA:

Plaza Nagusian dagoen lau solairuko arkupedun eraikina da. Barrutik, berriz, badu berezitasun bat, barruko bolumenaren zatirik handiena antzinako eliza batek hartzen baitu. Gaur egun Sanagustin Kulturgunea espazio eszenikoak hartzen du espazio hau. Gainera, eraikinak teilatupeko solairu bat du. Beraz, eraikina bi eremutan banatuta dago: Udaletxea bera eta Sanagustin kultur gunea.



Bi aldeen irisgarritasun maila, oro har, onargarria da. Eraikinak hiru igogailu ditu, solairu bakoitzean maila ezberdin gutxi daude, eta atea, orokorrean, behar bezain zabalak dira.

Irisgarritasun-arazo nagusiak komunetan daude; izan ere, egokitzen batzuk izan dituzte komun batzuk baina ez dira nahikoa. Beraz, ez daude behar bezala egokituta. Ate estuegi batzuk ere badaude, eta, batez ere, seinaleztapen irisgarria falta da erabat.

ED02 –ZEZEN PLAZA

Zezen-plazen antolamendu kanonikoa duen eraikina da. Oin zirkularra du, ikuskizunak egiten diren erdigune nagusi edo hondar bat duena, eta harmailak inguruan. Bertara sartzeko, tarteko edo goiko mailan jarritako sarrerak erabili behar dira. Harmailak, aldi berean, zonaka banatuta daude (palkoak, presidentzia, tendidoak, etab.),



beheko solairuetan barneko erabilerarako gelak, armairuak eta komunak dauden bitartean. Eraikina sartzeko, sarrera ugari daude eraikinaren perimetro osoan; horietako batzuk tarteko mailara iristen dira, eta beste batzuk, berriz, goiko mailara.

Irisgarritasunaren ikuspuntutik, eraikinak arazo asko ditu eta oso zaila da erabat eraberritu gabe konpontzea. Sarbideetako bat ere ezin da irisgarritzat jo, ez dago behar bezala egokitutako komunik, barruko korridoreak estuak dira, mailarik gabeko palko bakarra dago, baina ez dago bertara iristeko modurik, eta harmaila batzuetatik besteetara igarotzea zaila da eta arriskutsua pertsona eta egoera batzuentzat.

Dagokien txostenetan (Liburuki honen bukaeran), egin beharreko jarduketak adierazten dira, baina horiek ez dituzte inola ere konpontzen hautemandako arazoak; aitzitik, plazaren irisgarritasun-maila zertxobait hobetzen dute. Azaldu den bezala, antzemandako arazo guztiak konpontzeko, ia erabateko eraberritzea gauzatu beharko litzateke

ED03 - KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA 1

Oin angeluzuzena eta bi altuera dituen eraikina da. Sarrera nagusia goiko solairutik egiten da, nahiz eta kaletik zuzenean beheko solairura ere iritsi daitekeen.



Irisgarritasunari dagokionez, igogailurik ez duen eraikina behar bezala komunikatuta dago jolas gunearekin, arrapala irisgarria baitu.

Hortaz, igogailurik ez egotea ez da, kasu honetan, irisgarritasun-arazo garrantzitsua, arrapalen bidezko alternatiba bat baitago, kanpoaldean kokatua badago ere. Puntu honetan, argitu behar da igogailu bat jartzea ez dela irtenbide eraginkorra, erabiltzaileak oso adin txikikoak direlako eta ezin izango lukete inola ere modu autonomoan erabili.

Arazo nagusia, ordea, ate gehienak estuak izatea da, eta seinaleztapen irisgarririk ez izatea.

ED04 - KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA 2

Oin angeluzuzena duen hiru solairuko eraikina da, baina gimnasio bat ere badu azpiko beste solairu batean edo erdi-sotoan. Beheko solairuan espazio komun guztiak daude; goiko solairuetan, berriz, ikasgelak, erdiko bi barne-patioren inguruan.



Eraikinak goiko hiru solairuak lotzen dituen igogailua du; frontoira eta gimnasia sartzeko, berriz, arrapala irisgarri handi bat du, eskailerez gain. Gainera, ikastolak komun irisgarri batzuk ditu, baina horietako batzuek ez dituzte beharrezkoak diren egokitzapenak.

Eraikinaren arazo nagusia ate askoren estutasuna da, eta ate horien artean gela guztiak daude. Era berean, ez du inolako seinaleztapen irisgarririk.

ED08 - IZARRAITZ PILOTALEKUA

Tamaina handiko eraikina da, erabilera ezberdineko hainbat zatitan banatua. Eraikinak oin angeluzuzena du gutxi gorabehera, eta 5 solairu ditu. Beheko bi solairuak ia osorik Gaztelekuak eta emakumeentzako guneak betetzen dituzte, frontoiko sarrera nagusiaz gain.



Hirugarren solairuan pilotalekuko komunak eta aldagelak daude, baita kantxa bera ere, eta goiko bi mailak harmailen goiko mailetarako dira. Bitxia bada ere, solairu guztiek sarbide zuzena dute kaletik, nahiz eta batzuetan horiek publikoak ez izan.

Irisgarritasunaren ikuspegitik, hasteko, eraikinak solairu guztiak lotzen dituen igogailua du. Igogailu horrek, gainera, eraikinaren funtzionamendutik kanpo erabiltzeko aukera ematen du, eta behean eta goian sarbide irekiak ditu; beraz, hiri-igogailu gisa ere erabiltzen da. Behealdean, Gaztelekuak eta emakumeentzako guneak komun egokituak dituzte (ez erabat), baita ate eta korridoreen zabalera behar bestekoa da; beraz, irisgarritasun-maila nahiko ona da. Frontoiaren aldean, ordea, egoera bestelakoa da. Harmaila osoan hiru plaza baino ez daude seinaleztatuta gurpil-aulkien erabiltzaileentzat, eta komun bakar bat, egokitzapen batzuk dituen. Gainera, erreserbatutako plazak dauden bestelako solairuan kokatua dago. Halaber, eraikin osoan ez dago aldagela irisgarririk, ez eta orientaziorako seinaleztapenik edo laguntzarik ere.

ED09 - LUDOTEKA ITURRI TXIKI

Berez, bi lokal dira, bakoitza bere sarrerarekin, eta atzealdean dagoen pasabide batek lotzen ditu. Bi lokalak ia diafanoak dira eta, batean, komunak daude.

Lokalak ia irisgarriak dira kaletik (atalasean 3 cm-ko mailatxo baina ez dago) eta ateak nahiko zabalak dira. Hala ere, komunak, zabalak



izan arren, ez dira irisgarriak, eta hori da arazo garrantzitsuena irisgarritasunari dagokionez.

ED10 - LUDOTEKA SANJUANDEGI

Behe solairuan dagoen lokal bat da, ia diafanoa, eta bulego bat eta komun batzuk ditu.

Lokal osoa, sarbidea barne, kota berean dago, eta, beraz, ez dago maila aldaketekin edo zoruan egon daitezkeen mailekin lotutako zailtasunik. Aldiz, sarrerako ate



bikoitzak bien artean maniobrak egiteko behar bezain lekurik ez egotea eragiten du. Gainera, egokitzen dituen komun bat egon arren, ez da irisgarria, tamaina, sarrera eta dituen elementuengatik.

ED12 - URRESTILLA PERRETXXIKOA

Irisgarritasunaren ikuspegitik, adin hain txikiko haurrak zaintzeko eta hezteko eraikinek berezitasun garrantzitsu bat dute. Beste edozein eraikin motatan erabiltzaile orok modu autonomoan erabili ahal izatea bilatzen denean, horrelako eraikin batean ideia honek ez du zentzurik, haurrek oso gutxitan funtzionatzen baitute autonomiaz, eta haien beharrak desberdinak dira. Litekeena da, jakina, gurgil-



aulkiak erabiltzen dituzten haurrak egotea, baina, nolana ere, horiek helduenak baino askoz txikiagoak izango dira beti, eta ibiltzeko beste behar batzuk dituzte.

Azterketa, beraz, gurasoengan zentratzen da gehienbat, eraikinera sartu, bisitatu eta zuzendaritzarekin bildu ahal izateko. Horrela, espazio eta pasabideen zabalera,

desnibelak eta seinaleztapena aztertuko dira, baina ez komunak edo beste espazio irisgarri batzuk dauden ala ez.

Aipatu eraikina hexagono oina duen eredu bat da, toki askotan haurtzaindegi gisa eraikia, ondoren beste erabilera batzuk ematera pasatzeko. Solairu bakarreko eraikina da, alboetako espazioak (hexagonoak) ikasgeletarako erabiltzen dira, eta erdikoa komunetarako eta administrazioarako.

Bi sarrera ditu, eta horietako batera arrapala bidez sartzen da. Nahiz eta hasiera batean sarrera nagusia ez izan, zentroko langileek jakinarazi zuten biak berdin erabiltzen direla. Beraz, arazo aipagarri bakarra ikasgeletako barruko ateak estuak izatea da.

8.- AURREKONTUA

Ondoren azalduko dugun proposamen ekonomikoak Irisgarritasun Planean eta, zehazki, udal-eraikinetako jarduketan aurrekontuetan eragina izan dezaketen kontzeptu guztiak jasotzen ditu. Kontuan hartu behar da aurkezten diren aurrekontuak nabarmen murriz daitezkeela proposatutako esku-hartzeei aurreikusitako udal-jarduketako programak gehitzen bazaizkie, hala nola udal-ekipamenduak eraberritzeko eta mantentzeko lanak.

Lehenik, komeni da aipatzea, orain arte erabilitako datu ekonomikoak soilik eta zehazki eraikinak irisgarriak bihurtzeko beharrezkoak diren esku-hartze materialak kontuan hartzen dituela. Azkeneko aurrekontuak kalkulatzeko beste kontzeptu batzuk kontuan hartu behar dira eta ondoren azaltzen ditugu.

Aurkezten den aurrekontua gutxi gorabeherakoa da eta aldaketak izan ditzake gauzatze prozesuan. Nahiz eta aurrekontuan azaltzen diren jarduketa bakoitzean ezusteko gastuen portzentaje bat kontuan hartu izan, obrak gauzatzerakoan, analisi eta azterketa fasean ziurtatzea posible ez diren baldintzatzaileak sortzen dira. Gainera, aplikatutako aleko prezioak jarduketa orokorre dagokie eta ez dituzte aintzat hartzen posible diren berezitasunak.

Edonola, aurrekontu hauek egiteko erabilitako prezio baseak nahiko erkatuak eta egiaztatuak daude, fidagarritasun egokia bermatzeko. Datu baseak idazketa taldeak diseinatu ditu, irisgarritasunari dagokionez erreferentziazko prezio base zehatzen gabeziagatik.

Prezio hauek Udal ekipamenduetan muga arkitektonikoak kentzeko esku-hartze elementuen gutxi gorabeherako prezioetan oinarritzen dira eta gutxi gorabeherako balioespenak egiteko erabiltzen dira.

Baita kontsultatu dira ere arkitektura eta hirigintzako beste prezio erreferentziak, merkatuan aurkitu direnak, eta irisgarritasunaren eremuan aplikatutako beste prezio base batzuekin kontrastatu dira.

Irisgarritasun Planeko Udal Eraikinetarako ekimenen azken aurrekontua, gauzatze jarduketan aurrekontu totalari zenbait kontzeptu aplikatuz kalkulatu da, eta Gauzatze Materialaren Aurrekontua deituko diogu. Beraz, azken aurrekontuak ondorengo kontzeptuak izango ditu:

1. Lehenik, **Gauzatze Materialaren Aurrekontua (G.M.A.)** fase bakoitzean aurreikusitako jarduketaren obra-lanen kostu erreala batzen du, hau da, eraikinetan egin beharreko jarduketaren aurrekontua.
2. Bigarrenik, **zerga-oinarria (Z.O.)** kontzeptua dugu, gauzatze proiektuen aurrekontuak egiterakoan kontuan hartzea komeni den beste kontzeptu batzuk batzen dituen. Zerga-oinarria (Z.O) Gauzatze Materialaren Aurrekontuaren gainean kalkulatzeko da eta Gastu Orokorrak, Etekin Industrialak eta Gauzatze Proiektuen Idazketa eta Obra Zuzendaritza kontzeptuak barne hartzen ditu.
3. Hirugarren atala zergei dagokio eta aplikagarria den **Balio Erantsiaren gaineko Zerga (B.E.Z)** kontuan hartzen da, aurreko ataletako (G.M.A. eta Z.O.) batuketaren emaitzaren gainean kalkulatzeko dena. Hiru atal horien batuketak udal eraikinen azken aurrekontua osatzen dute.

Etorkizunean egingo diren lau urteko irisgarritasun planak honako lau urteko planean egindako analisisian oinarritu ahalko dira, eta plan hau onartzen den momentutik aurrera, udalak egingo duen eguneratze jarraituan, udalerriaren egoeraren inguruan irisgarritasunaren eremuan.

8.1.- Aurrekontua etapaka

Irisgarritasun Plana etapaka kudeatu ahal izateko interesgarria dirudi plana etapaka egituratzea. Irisgarritasun Planaren Udal Eraikinetarako Ekimen Planaren aurrekontua horrela egituratzen da:

	Gauzatze materialaren aurrekontua	Aurrekontu total
Lehentasunak	312.035,00 €	475.728,56 €
Ondorengo faseak	429.698,50 €	655.118,33 €
Osoa	741.733,50 €	1.130.846,89 €

ERAIKINAK - IRISGARritASUN PLANAREN AURREKONTUA ETAPAKA

<u>Gauzatze Materialaren Aurrekontua (G.M.A)</u>	<u>Lehentasunak</u>	<u>Ondorengo Faseak</u>	<u>Totala</u>
Aurrekontu osoa	312.035,00 €	429.698,50 €	741.733,50 €
Gauzatze materialaren aurrekontu totala	312.035,00 €	429.698,50 €	741.733,50 €

Zerga Oinarria (Z.O.)

Proiektuak idaztea eta obra zuzentzea(7%)	21.842,45 €	30.078,90 €	51.921,35 €
Etakin industrialak (E.I.) (6%)	18.722,10 €	25.781,91 €	44.504,01 €
Gastu Orokorrak (G.O.)(13%)	40.564,55 €	55.860,81 €	96.425,36 €
Zerga Oinarri Totala (Z.O.)	393.164,10 €	541.420,11 €	934.584,21 €

Zergak

Balio Erantsiaren Zerga (B.E.Z.) 21%	82.564,46 €	113.698,22 €	196.262,68 €
Aurrekontu Orokorraren Totala	475.728,56 €	655.118,33 €	1.130.846,89 €

Oharra: proiektuak idatzi eta zuzentzeari dagokion portzentajea gauzatu beharreko obraren gauzatze materialaren aurrekontuaren % 7 dela kalkulatu da. Hala ere, komeni da ohartaraztea ehuneko hori ez dela finkoa, eta ez dagoela inongo arauen bidez edo kontratatutako teknikari posibleen elkargo profesionalaren bidez ezarrita. Gehitu bada, kontuan hartu beharreko kopurua delako da, baina ehunekoa alda daitekeela adierazi behar dugu.

8.2.- Irisgarritasun Planaren Aurrekontu Orokorra

